



EUSKAL IDAZLEAK



Idore an biri dira
 rak biri dira a-
 nitz etzien erdi-
 an.

Su lezekoak ez
 dira bakarrik
 emen biri gera
 nok ditugun
 etzai guziak.

Mendiburu'tar. S

Mendiburu'tar Sebastian, S. J.

(1708 - 1782)

EUSKAL IDAZLEAK

**Mendiburu'tar Sebastian, S. J.
(1708 - 1782)**

Antolatzaille:

Etxebarria'tar Juan Anjel



S. Anton'go Katekesia
Euskal - argitalpenak



Depósito Legal: BI 2260 - 1968

Algorta'ko

Elorriaga'tar Mertxe'ri:

**Gaztaroan ez ibilli itun.
Euskalerrian altzoan murgil,
arentzat bizi ta ba-dukezu
maite-garretan biotza pil-pil.**

euskera joria? Ba, oraingo ontan, Mendiburu'renean, zati on bat. Gaurkotu ezazute zeuok euskera, gai, gauza eta nor ba' zerate.

Ia noiz ataratzen duzuten olako esaldi eder-jatorra, akatsik gabekoa, zuei ere Mendiburu'ri bezala Zizero euskalduna esan dagitzuen.

«Ba-da Indian Malaka deritzan erri eder bat. Portugesena zan erri au, S. Frantzisko Xabier Indietan zebillen denboran. Soldadu guti zituen S. Frantzisko Xabier an arkitzen zan aldi batean. Izandu zuten soldadu gabentz onen berria alde artako mairuak edo mairu legekoak; eta begi onez ezin ikusiz portugesen eskutan beren basterreko erri au, bildu zituzten gerrako irurogei ontzi, ta bear zituzten gauzatarako beste zenbait; eta gauaz, errikorik oartu bage, erri aldera ziran guziak. Atera zituzten idorrera gerrako bost mil gizon eta geiago; ta goizeko ordu bietan artako ziran eskal luzeak eramane ta asi ziran anitz aldetik errira igaten. Baña zertara ziyoazen norbaitek ekusi, ta ezkil torreetako soñuarekin erriko guziak iratzarrita, zituzten armak artu, murall gañera igan, ta ara ziran mairuak bota, ta bazter aietatik aienatu, ta urratu zituzten mairuen neurriak, eta gelditu ziran erritarrak beren erriarekin».

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

Ona emen 1922-garren urtean, argitara ataratzean, Yorke Agirre josulagunak idazti oni ipiñi zion itzaurrearen atal batzuk:


Baña zabarkeri negargarria! ezer gutxi egin degu euskaldunok euskeraz, orain arte beintzat, naparrrik ospetsuenaren izena ta egintzak argitaratuaz, beraganako zaletasuna zabaltzen.

Oker au zuzendu naiaz, argitaratu ditugu illunpean zeuden «Irakurraldi» auek. Orain berreun bat urte dirala Oyartzun-napar aldean egiten zuten euskeran egiñak daude. Aita Mendiburu'rena izan ere ta, euskera eder eta garbia da; baña ez uste izan irakurle guztientzat itz guztiak argiak eta yakiñak dirala. Agitz, anitz, suleze, al, eta onelako beste itz batzuek arkituko dituzu, naparraldeko itz eder egokiak. Gure euskera anitzek uste baño ugariagoa da itz eta esaeretan; gu berriz (egia esan nai badegu) euskeraz ezyakin samarrak gerala, aitor-tu bearrik ere ez dago.


Idazkera bat edo beste erabilli bear genduela ta, autu bear dana autu degu: Euskaltzaindiarena.

Ikusiko dituzu erderazko itz batzuek baita beste batzuek berriak diruditenak ere. Erdērazkuak, Aita Mendiburenak dirala-ta, euskera garbira biurtzeko guztiz errazak izan arren, biurtu gabe utzi ditugu; berriak diruditenak ez dira berriak edo guk asmatuak, baizik aspaldi aspaldikoak, Mendiburu berarenak. Itz garbi ta egoki oyekin erderazko guztiak euskera garbira biurtu litezke.


YORKE AGIRRE, S. J.



Oñate, 1880. *Confitería Juncos*



Mendiburu'ren oroitarria Oñateun'en



Alboetan, bere idaztien izenak



A Sebastián Mendiburu
Euskaldun bateri, Euskalerrria'n, euskaldunak erderaz itz egin...
erru guztia ez ezarri kanpokoet

1

Bada, Goa'ko milagro berak *onenbat* ba'dira, Peskeri'koak, Malabar'en artekoak, Malaka'koak, Kotxintxina'koak, Yapon'go erreinu andietakoak, Mairuen islakoak, eta Santu bera ibilli zen an bertako beste isletakoak, erreinuetakoak eta bazterretakoak ote dira?

2

Ark ez bezalako gauzak erakusten dituzu zuk; baña erakusten dezunaren alde ez dezu oraindik milagro bat ere egin. Egizkitzu, bada, bein ark adiña milagro; ta ekusiko dugu, zuk diguzuna artzeko, utzi bear dugun edo ez (1), S. Frantzisko Xabier'ek emen erakutsia.

3

Zerbait ondasun zeraman soldadu bat utzi zuten bage itsas-lapurrak; eta zuenarekin batean bizia galtzeko beldurrez, ontzitik itsasora saltatu, ta igerian itsas bazterrera zen.

4

"Yangoiko berak dizula oraingo zure bearrak (2) eskatzen duena".

5

Santuaren sakelan egin edo utzi zituen Yangoikoak, munduan egiten ziranak ez bezelako diru zenbait.

6

Milagrozko diruarekin atera zuen aldi onetan S. Frantzisko Xabier'ek soldadu au bere gabentz eta bear anditik;

7

Eta bere giltza itzuli-biurtu zionean, esan zion Pedro Bellori zenbat zen artu zuena.

8

Yakiñen dezula zere il denbora, il zaitezen zerurako dagon doatsuari dagokan gisan.

9

Orduan zena, da orain ere; ta bazoazke (3) argana, Yangoikoagandik bear dezuna erditsiko dizulako uste osoan.

10

Ta gizonen baitan, zenbait aldiz beintzat, ez da arkitzen orrenbat gaitzgai garaitzeko diña indar ta esku;

11

Ta itsaso bazterrera bage aitzen ba'da ontzian daramaten ur geza, egarriz iltzen dira ontziz dabilzkanak. Galerak eta gabarrak eta txalupak eta itxasontzi txikiak ba-dabilzke arraunen batetik bestera, itsasoan aizerik ez ibilligatik.

12

“Ekazkitzue zuk eta zure legeko emen arkitzen zarazten guziok ontziko ur ontzi ta pipa guziak”.

13

Batak eta besteak asi ziran edaten, lenbizian beren beldurrarekin, ta asi ta ura estarrira orduko, Yainkoak daki zer pozarekin.

14

Baña uraren gaztasunak miia erre, ta ura botata, gelditu ziran artu zutelako damuarekin tuka ta listuka.

15

Yapon'a (4) edo beste urrutiren batera yoa-teko...

16

Beste langilleen artean ba'dira munduan gañeko aizea argiz ta polbor soñuz betetzen daitenenak. Argi-soñugai oriek egiten dituzte egun andietarako, ta atsegiñezko berri andiak etortzen diran zenbait alditarako.

17

Laster gorde zen ontziko guzien begitik, eta ondatu zelako agitz naigabetua zebillen ontzi nagusia:

18

Ametsa zela uste zuten aditzen zutena, ta “nola dabilke” —zioten— “mastoyalekin ta aize onarekin ontzi au adiña, ta au baño ere gegyago, non arkitzen den ez dakigun, itxas zapirik ez dakarren ta laur arraun baizik ez dituen txalupa?

19

Orra zer den itsastarrentzat ere S. Frantzisko Xabier. Balia dakiela, beraz, baliatzen diranei. Bai arren, bai.

20

“Aita santua, agitz gaizki arkitzen da nere nagusia, ta arkitzen da zu ekusi nai andiarekin; zoazkio (5), arren, sendatzera”.

21

“Aldi onetan ez, ezin noake —erantzuten dio Santuak— “Ekusten dezu dudan zeregiña, ta zeregin ezin utz dezakedana. Alere egiñen dut zerbait zure nagusi eriaren onerako”.

22

Egitekoz beterik ez egotera berak yoanda egiñen zituen milagro.

23

Eta gauaz, errikorik oartu bage, erri aldera ziran guziak.

24

Ara ziranean, nai zutena bidean edan, ta gelditu zen ura eraman zuten itxeetara; ta itxe-etako eri ur ura edan zutenak gelditu ziran osasundun sendatuak. Eta orra, itsasoko milagro bati zerraizkola, zenbat milagro itsaso berean ta idorrean San Frantzisko Xabier'ek aldi onetan egiñak.

25

Ta eguna argitu zenean, yarri ziran erriaren aurkezkan, pelean sartzeko eran, edo ontzi guziak beren bander zabalduekin, nai adiña edan ondoan, Aita santuari eskerrak eman, ta esan

zuten guziak beren bizian edan etzutela (6) ur ura bezain otz arin merik eta barren ohea egin zienik.

26

Ta eskatu zion Santuak an arkitzen zen probedoreari, presta zitzala ziranak (7), eta alik lasterrena.

27

Ta au itsasora orduko (8), urratu ta urez bete ta ondatu zen, erriko guziak begira zeudela.

28

Predikatzen ari zen igande batez, isildu zen piskapur bat S. Frantzisko Xabier; eta gero aldean zuen Santo Kristo'gana giratu, ta asi zen esaten, “Ah Jesus! Orain da aldia... yarra, yarra”.

29

Eta etorri ere zen, ark esan bezala.

30

Alderena zutenak billatzen dute S. Frantzisko Xabier, ta negarrez beteak esaten diote agitzen dena, ta eskatzen diote bereetatik bat.

31

Ta ura ala ikusita, soldadu badagak an ziran ura aurrer-aitziñat adiña, gibelat igeska.

32

Ta itsas bazterrak utzi, ta ur anditan sarturik zebillen batez, ekusi zuten ontzi berekoak aldetik zerraikola mairuen itsas lapur ontzi andi, agitz biziro zebillen bat; eta ekusi zuten aren atzaparretik Santu berak ez ateratzera, galduak izan bear zutela.

33

Ta zena arriturik, yoan zen andik, beste gazarik Erroma'n ekusi bage, bere errira itzultzeko asmoan, ta artu ere zuen zenbait aldiz arako bidea.

34

Bada billatzen ta eskatzen ez duen ga-beak (9) izan ez oi du nai duena.

35

Eta medallaren yabe Luzia'ri deitu eskatu zion, biz zezan Santuak aren aur illa.

36

Ordua baño len yayoa, edo zazpikia zen Luzi beraren erriko aur bat.

37

Ta medal au aren ezpañetara orduko, gel-ditu zen aurra iñudearen besotik erori baño len arkitzen zen bezain osoa ta osasun onekoa, ta nonnai ager ziteken gisakoa.

38

Indazu (10), bada, niri ere S. Frantzisko Xabier, nere aur illaren bizia; ta au zuk, nik eskatu, ta biztu didazulako poza ta atsegintza.

39

Andres Gonzalez'ek ere au bera egiñ zuela usteko dezu.

40

Ta itsaso-beraren erdian ere egin dakioker Yankoikoari otoitz, eta eska dakieke berari edo beraren santuren bati edozein gauz eta milagro.

Ta bere biotzeko miñarekin, ta zuen seme nai andiarekin, ez dakigu zer izandu zen San Frantzisko Xabier'i aldi artan ark an zesana (11).

Emengo gisan, Indian ere fededun, jentil ta turkoak ibiltzen dira saldu erosian, ta beren beste egitekoz erri ta probintzi batetik bestera.

Baña idoloak zur puskak, sagukabiak eta deabrutegi zikiñak dira, ta, semerik ez ezik, pits bat ere ezin eman dezaketen gauzak; eta azkenean, andre gaxoa utzi zuten bere nai utsarekin ta umerik bage.

Ekusi zuen begiak idikitzen zituela, ta zabalitzen zuela aoa, amaren bularra eskatzen (12) ba'lu bezala.

Edo andre jentil batena diñako ustearekin ezin eska dezoket nik Santuari biz diezadala?

Baña itxozu. Etzen emen bukatu San Frantzisko Xabier'ek Tomas Croze'ren semearekin egin zuen milagro guzia.

Noiz utzi uste (13) dezu dakartzun bide makurra?

Ta au berotuz bezala, oztuz ta galduz (14) yoan zen S. Frantzisko Xabier'i goiz artan eman zion itza; ta berak nai bezala, asi zen bere gogo gaiztoari esaten; erakeria ta ametsa, egun goizean nik izandu dudana.

Baña etzien beartsu gaxoei emalleen diruz laguntzen, emalle berak kaltear (15) uzten zituela.

Lotsarik ez dezun eskergabea; berriz aratzen ba'zera...

51

Ta nere bekatu berakgatik agitz beldur naz
onda dakidan betiko sulezcan nere anima. Zori
gaiztoan yayoa ni, nere anima bein ara ezkeru.

52

Atoz ezperen (16), Portugal'tik Indira era-
man zuen ontzian ekustera.

53

Eta gaizki nik zai zaitzaket, zauden bezain
eri arkitzen zerala, uzten ba'dizut gau ta egun
orrenbat eriren ta iltzen daudenen artean.

54

Itxozue gutitxo bat; emengoa laster egin,
ta zuekin naz.

55

Artu zuen S. Frantzisko Xabier'ek ontzien
gubernari ta beraren ontziko nagusi yaunak be-
rezi zion gel modu bat; baña artu zuen, non
egon etzuten eri gaxoak eta gaizkien arkitzen
ziranak an sartzeko; alderagotik an berak, be-
rezkiago ta obeki laguntzeko.

56

Ontzi barrenako tokirik azpirenekoan ta
txarreanean arkitzen ziran gizon ezerezenak, eta
eri beartsuenak.

57

Itsasoz dabiltzanak irabaz andiak egin na-
yez, galtzen dute askotan zutena, ta gelditzen
dira gabe ta beartsu.

58

Ta beartsu gaxoei, ari oriek eskatu ezkeru,
zuzenduko (17) die nolerebait bear dutena. Yan-
goikoak diola bakoitzari, bere lan au bear be-
zala egiteko grazia. Bai arren, bai.

59

Eta geroztik etzuten arrantzaleak sareen bo-
taldirik egin, arrai aldi andirik egiten etzutela.

60

Astizago bezala egiña da, ta ez bakarra,
orain zuk adituko dezuna.

Au adituta; "*Zu ba'zara* — erantzuten dio S. Pedro'k bere Maisu Yesus maitagarriari — *ba-noa oñez Zugana* — *Ni naz, ta ba-zatozke* — esaten dio Yesus'ek San Pedro'ri.

62

Koeteen izena dute aizeko soñugai argigille oriek.

63

Bide (18) zuen San Frantzisko Xabier'ekin zerbait debozio.

64

Bada, ekusten dezun bezala, onara nitzanean baño agitz gaizkiago arkitzen naz gaur.

65

Ta azkenean andik atera zen, lenbiziko egu-nean bezain itsu, egun artan baño ere agitz nekatuagoa, ta zerbait artu bearragoa, ta orduan baño ere ist eta irri geyago gitzen ziotela.

OARRAK

- (1) *Dugun ala ez.*
- (2) *Zure oraingo bearrak, esango luke Iturriaga'k*
- (3) *Joan zindezke.*
- (4) *Yapon'era, gaurko geienak.*
- (5) *Joan zakioz.*
- (6) *Etzutela edan, esango dugu gaur.*
- (7) *Danak.*
- (8) *Baizen laster (beste batzutan: baño lenago).*
- (9) *Ezeukiak.*
- (10) *Eman zaidazu.*
- (11) *Esaten zuna.*
- (12) *Eskatuko ba'lu bezala.*
- (13) *Noiz utzitzeko ustea dezu.*
- (14) *Oztuz eta galduz, lateraz ...esco aditzak.*
- (15) *Kalte artzekotan.*
- (16) *Bestela.*
- (17) *Eskuratuko.*
- (18) *Ba-zuen, antza.*

LABURPEN ONTAN AGERTZEN DIRAN

Aditz berenkoiak

EDUN: indazu, egizkitzu.
EGIN: diguzuna, dizula, diola.
EKARRI: ekazkitzue, dakartzu.
ESAN: zesan.
ETORRI: zatozke.
IBILLI: dabilzke, dabilke.
ITXEKI: ditxezko.
ITXOIN: itxozu, itxozue.
IZAN: dakiela, dakioko, dakidan, zaitzaket.
JARRAITU: zerraizkola, zerraikola.
JOAN: zoazke, zoazkio, noake.

Itz bakanak

Alderagotik.
Alderena.
Argi-soñugai.
Astizago.
Azpireneko.
Bage.
Ezperen.
Gabe.
Gabentz(a).
Gutitxo.
Itsas-ego.
Itsas-zapi.
Listuka.
Onenbat.
Orrenbat.
Piskapur bat.
Saldu-erosi.
Soñugai-argigille.
Zena.
Ziranak.
Tuka.

Ara ziranean.
Ark ez bezelako gauzak.
Berriz aratzen ba'zera.
Beste urrutiren batera.
Bide zun zerbait.
Biz zezan.
Eta etorri ere zen
Itsaso bazterrera bage.
jarri ziran erriaren aurkezkan.
Kaltear utzi.
Noiz utzi uste dezu.
Onara nintzanean.
Ur anditan sarturik.
usteko dezu.
Zerbait artu bearrago.
Zuzenduko die nolerebait bear dutena.

Gai jakingarriak

Jainko-aizunak	43
Zazpikia	36

MENDIBURU'ren idazlan osoak.
MITXELENA, K.: *Historia de la Literatura Vasca*, «Mino-
tauro».
BILLASANTE, O.F.M.: *Historia de la Literatura Vasca*,
«Sendo».
AZKUE, R. M.: *Mendiburu'ren idazkera ta idaztankera*.

AGERTUTAKO IDAZTIAK

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri - Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak I
7. Agustin Deunaren Eskutitzak
8. Gurutz - Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuinak (2-garren argitalpena irarteko)
12. Batikano II Batzar - Agiriak (Gizarte artu-emonetako bideak)
13. Apuntes de Vascuence (Segundo curso)
14. Lope de Vega - Bakar-Autuak
15. Liturji - Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano-Agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)
18. Lati-izkuntzaren joskera (Orixe)
19. Euskal iztegi Laburra (B - D)
20. Kristau - Aziera (Batikano Agiriak)
21. Euskal Iztegi Laburra (E - F)
22. Basoko Loreak (olerkiak)
23. Lo ta Amets (Olerkiak)
24. Apuntes de Vascuence (Primer Curso)

25. Katalunya'ko Olerkariak
26. Bidaztien Aterpea
27. Apuntes de Vascuence (Tercer Curso)
28. Euskal Iztegi Laburra (G - I)
29. Galburutan (Gallastegi'tar Kauldi)
30. Euskerazko Meza (Intxausti'tar Artur)
31. Humanae Vitae
32. Euskal Idazleak (I) Mendiburu'tar S.